

EZEZKO NOMINALIZAZIOAK BIZKAIERAZ

Iñaki Gaminde

Artikulu honen bidez, Bizkaian ezezko nominalizazioetan "ez" adberbioa ager dakigukeen kokagunea ezagutarazi gura da. Kokagune horren arabera jokabide nagusi bi agertzen zaizkigu; batean, "ez" aditz-izenaren aurrean agertzen da, berau ekialdeko joera nagusia izanda, eta bestean, osteran, aditz-izena urratuz, aditz-partizipioaren ostean agertzen da, berau mendebaldeko joera nagusia izanda. Beste kasu askotan jazotzen den legez, hemen ere Gernikako itsasadarretik hasita Bizkaia goitik behera erdibitzen duen isoglosa berriro agertzen zaigu.

Artikuluska honetan Bizkaieraren eremuan ezezko nominalizazioetan "ez" adberbioaren kokaguneaz ihardungo dugu; hala nola, beraz ager dakigukeen kokagune desberdinen hedadura geografikoaz ere.

Aditz-izenak aditz-partizipioari TE atzizkiak deusela lortzen ditugu bizkaieraren bariedade gchienetan; hala ere, eta hauxe da hemen gagozkion arazoa, ezezkoak egitean, hots, "ez" jartzean TE hau zenbait bariedadetan aditz-partizipio horretatik bananduta agertzen zaigu.

Gure lantxo honetan hiru nominalizazioen erabilera aurkezten ditugu: -TEA, -TEAGATIK/-TEARREN eta -TEKO. Bariedade desberdinetako datuak ematean Bonapartek eginako sailkapena oinarritzat hartu dugu. Hona hemen nominalizazio hauen erabilera ezezkoetan.

- TEA (ez ibiltzea txarra da).

Plentziako bariedadea:

- ibili esitxie da txarra (Bakio)
- ibili esitxe esta ona (Lemoiz)
- ibili esitxe txarra da (Sopela)
- ibilli este txarra da (Urduliz)
- ibilli esitte esta ona (Gatika)
- ibili este da txarra (Leioa)
- ibili este txarra da (Loiu)
- ibili estea da txarra (Sondika)
- ibili estea txarra da (Zamudio)
- ibili estea txarra dok (Lezama)

Arrigorriagako bariedadea:

- ibili esittie txarra da (Buja, Basauri)
- ibili estie txarra da (Begoña)
- ibili estea txarra da (Galdakao)
- ibili estie txarra da (Zaratamo)
- ibili esitea txarra dok (Zeberio)
- ibili esitie da txarra (Zollo)

Orozkoko bariedadea:

- ibili esitea txarra da (Orozko)

Arratiako bariedadea:

- ibili esitea txarra da (Bedia, Zcanuri, Dima)
- ibili esitea da txarra (Igorre)
- ibili estia esta ondo (Larrabetzu)

Bermeoko bariedadea:

- es ibiltxie txarra da (Bermeo)
- es ibiltxia txarra da (Mundaka)
- es ibilttie txarra da (Muruetan)
- es ibiltxie txarra da (Arteaga)
- es ibiltxi txarra da (Elantxobe)

Gemikako bariedadea:

- ibili esittea txarra da (Mungia)
- ibilli esittie txarra da (Fruiz)
- ibili esitxia txarra da (Meñaka)
- es ibilttie txarra da (Zomotza)
- es ibilttie txarra da (Errigoitia)
- ibilli esittie txarra da (Forua)
- ibili esittie txarra da (Muxika)

- es ibiltie esta ona (Axangiz)
- ibilli esittie txarra da (Iurreta)
- ibilli esettie txarra da (Abadiño)
- ibili esittie txarra da (Berriz)
- es ibiltie txarra da (Arrazola)

Otxandioko barietatea:

- basuen es ibiltie txarra da (Otxandio)
- es ibiltie txarra da (Legutio)
- ibili esittie txarra da (Ubidea)

Markinako barietatea:

- es ibiltie txarra da (Eixebarria)
- es ibiltie txarra da (Bolibar)
- es ibiltie esta ona (Munitibar)
- es ibiltie txarra da (Aulestia)
- es ibiltia txarra da (Lekaitio)
- es ibiltia txarra da (Ondarru)
- ibili esittie txarra da (Zaldibar)
- es ibiltia txarra da (Elorrio)
- es ibiltia txarra da (Ermua)

Bergarako barietatea:

- es ibiltia txarra dok (Elgoibar)
- es ibiltia txarra da (Sorluze)
- es ibiltia txarra dok (Eibar)
- es ibiltia txarra da (Antzuola)

Gatzagako barietatea:

- es ibiltie txarra da (Arrasate)
- es ibiltie txarra da (Eskoriatza)
- es ibiltie da txarra (Aramaio)

-TEARREN/-TEAGATIK (ez afaltzeagatik joan egin dira)

Plentziako barietatea:

- afaridxe dxan esitxiarren dxoan dire (Bakio)
- afari yan esitxearren yon ifi dies (Lemoiz)
- afari yan esitxearren yon da (Sopela)
- afari yan esteaitik yon dire (Urduliz)
- afari yan esittearren yon dires (Gatika)
- afaldu estearren yon dire (Leioa)
- afaldu esteiti yon in dies (Loiu)
- afaldu estearrik yon in die (Sondika)
- afaldu estearrik yon in die (Zamudio)
- afaldu estecaitik yon dires (Lezama)

Arrigorriagako barietatea:

- afaldu esitearrik yon ifi dire (Buja)
- afaldu in estearren yon da (Begofia)
- afaldu esittearrik yon dires (Basauri)
- afaldu estearrik yon dires (Galdakao)
- afaldu estearren yon dire (Zaratamo)
- afaldu esteagaiti yon dire (Zeberio)
- afaldu esitearren yon dies (Zollo)

Orozkoko barietatea:

- afaldu esitearren joan in dires (Orozko)

Arratiako baricitatea:

- orreik yoan dire afaldu escitearren (Bedia)
- afaldu esitearren yoan dire (Igorre)
- afaldu esitearren yoan dire (Zeanuri)
- afaldu esitearren yoan in dire (Dima)
- afaldu estearren yoan dire (Larrabetzu)

Bermeoko baricitatea:

- afaridxe es dxateitxik dxun dies (Bermeo)
- apaidxa es dxatiarreitxik dxun dias (Mundaka)
- aparirik es jatiarren jun die (Muructa)
- es aparidxe jatiarren jun dies (Arteaga)
- apaidxe es dxatearren dxun in dix (Elantxobe)

Gernikako baricitatea:

- afarie yan esittearren yoan in dire (Mungia)
- afaldu esittiarren dxoan dire (Fruiz)
- apaldu esitxiaitxik dxoan dire (Meñaka)
- afaldu esittiarren joan ein dies (Zornotza)
- afaridxe jan escittiaititik joan dire (Errigoitia)
- afaridxe es jatiarren joan in ye (Forua)
- apaidxe es jatiarren joan die (Muxika)
- aparirik es jatearren joan die (Axangiz)
- afaldu esitticittik juen in dire (Iurreta)
- apaldu eifñ esittearren juen in die (Abadiño)

- afaldu esittiarren juen in die (Berriz)
- es apaittieaittik jun die (Arrazola)

Otxandioko baricitatea:

- afaldu esittearren martxau in daure (Otxandio)
- afaldu estearren juan die (Legutio)
- afaldu esitearren dxun in die (Ubidea)

Markinako baricitatea:

- es afaltzearren jun in die (Etxebarria)
- es afaltzearren jun die (Bolibar)
- aparidxe es jateagaittik jun dii (Munitibar)
- aparidxe es jatearren jun die (Aulestia)
- es afaldutiaititik dxun in dies (Lekeitio)
- es afaltzearren jun in di (Ondarru)
- afaldu esittiarren juen eifñ die (Zaldibar)
- es afaltziarren juan in dia (Elorrio)
- es afaltziarren juan dies (Ermua)

Bergarako baricitatea:

- es afaltzearren juan ditxuk (Elgoibar)
- es afaltxiaitxik juan dia (Soraluze)
- es afaltziarren juan itxuk (Eibar)
- es afaltziarren jun dia (Antzuola)

Gatzagako baricitatea:

- es afalttieaittik fan dies (Arrasate)
- es afalketarren fan die (Eskoriatza)

-TEKO (berdura jaten dut ez loditzeko)

Plentziako barietatea:

- berdurie dxaten dot loditxu esitxeko (Bakio)
- berdure yaten dot loditxu esitxeko (Lemoiz)
- yaten dot berdure loditxu esitxeko (Sopela)
- berdure yaten dot lodittu esteko (Urduliz)
- berdure yaten dot lodittu esitteko (Gatika)
- berdure yaten dot loditu esteko (Leioa)
- berdure yaten dot loditu esteko (Loiu)
- au yaten dot loditu esteko (Sondika)
- berdurek yaten dus loditu esteko (Zamudio)
- au yaten yoat loditu esteko (Lezama)

Arrigorriagako barietatea:

- au yaten dot loditu esiteko (Buja)
- yaten dot berdie loditu esitteko (Begoña)
- yaten dot berdurie lodittu esitteko (Basauri)
- au yaten dot loditu esteko (Galdakao)
- berdurie yaten dot lodittu esitteko (Zaratamo)
- berdurea yaten yoat loditu esiteko (Zeborio)
- au yaten dot loditu esiteko (Zollo)

Orozkoko barietatea:

- jaten doas berdurak loditu esiteko (Orozko)

Arraliako barietatea:

- yaten dot berdurea loditu esiteko (Bedia)
- yaten dot berdurea loditu esiteko (Igorre)
- au yaten dot loditu esiteko (Zeanuri)
- yan berdurea loditu esiteko (Dima)
- asak yaten doas loditu esteko (Larrabetzu)

Bermeko barietatea:

- au dxaten dot es loditxuteko (Bermco)
- berduria dxaten dot es loditxuteko (Mundaka)
- berdurie jaten dot es lodittuteko (Murmeta)
- jaten dot berdurie loditxu esitxeko (Arteaga)
- berduri dxaten dot es loditxuteko (Elantxobe)

Gernikako barietatea:

- berdurea yaten dot lodittu esitteko (Mungia)
- au dxaten dot lodittu esitteko (Fruiz)
- au dxaten dot loditxu esitxeko (Meñaka)
- jaten dot berdurie es loditzeko (Zornotza)
- jaten dot berdurie lodittu esitteko (Errigoitia)
- berdurie jaten dot lodittu esitteko (Forua)
- berdurie jaten dot es lodittuteko (Muxika)
- berdurie jaten dot lodittu esitteko (Axangiz)

- jaten dot au lodittu esitteko (Iurreta)
- au jan eitte ot lorittu eseitteko (Abadiño)
- berdurie jateot nik lodittu esitteko (Berriz)
- berdurie jatot es loditzeko (Arrazola)

Otxandioko barietatea:

- au dxaten dot es loritzeko (Otxandio)
- berdurie jaten dot es gisentzeko (Legutio)
- au dxaten dot loditu esitiko (Ubidca)

Markinako barietatea:

- jate ot berdurie es loditzeko (Etxebarria)
- berdurie jateot es loditzeko (Bolibar)
- au jaten dot es loditzeko (Munitibar)
- jateot berdurie es loditzeko (Aulestia)
- berdura dxaten dot es lodittuteko (Lekeitio)
- berdurak jate otxuas es galantzeko (Ondarru)
- berdurie jateot lodittu esitteko (Zaldibar)
- jateot au es loditzeko (Elorrio)
- berduria jaten dot es sendotzeko (Ermua)

Bergarako barietatea:

- berduria jaten juat es gisentzearen (Elgoibar)
- berduria jaten dot es gisentzeko (Soraluze)
- berduria jate juat es loditzeko (Eibar)
- berduria jaten dot es gisentzeko (Antzuola)

Gatzagako barietatea:

- berdurie jaten dot es gisentzieaittik (Arrasate)
- jaten dot berdurie es gisenketako (Eskoriatza)
- auxe jaten dot es gisenketarren (Aramaio)

Aurreko datuak ikusita EZ adberbioaren kokaguneari dagokionez talde nagusi bi bereiz dezakegu. Lehenengoan (A) EZ aditz-izenaren (AI) aurrean agertzen zaigu; bigarrenan (B) aditz-partizipioa (AP) eta TEren bitartean agertzen da; azken hau, hala ere, beste bitan bana dezakegu. Batcan (B1), TE horren aurrean "i" agertzen zaigu eta bestean (B2), ordea, "i" honen sidurririk ere ez da agertzen, EZ TE delako horri deusela egonda. Labur bilduz:

- A. EZ - AI
- B1. AP - EZ - ITE
- B2. AP - EZ - TE

Hedadura geografikoari dagokiola banan banan ikusi beharrean gaude, izan ere, herri batzutan aukera biak agertzen dira.

-TEA (Ikus bedi 1. mapa)

A.:

Bermeoko barietatea: Bermeo, Mundaka, Murueta, Arteaga, Elantxobe.

Gernikako barietatea: Zornotza,
Errigoitia, Axangiz, Arrazola.

Otxandioko barietatea: Otxandio,
Legutio.

Markinako barietatea: Etxebarria,
Bolibar, Munitibar, Aulestia, Le-
keitio, Ondarru, Elorrio, Ermua.

Bergarako barietatea: Elgoibar,
Soraluze, Eibar, Antzuola.

Gatzagako barietatea: Arrasate,
Eskoriatza, Aramaio.

B1.:

Plentziako barietatea: Bakio, Lemoiz,
Sopela, Gatika.

Arrigorriagako barietatea: Buja,
Basauri, Zeborio, Zollo.

Orozkoko barietatea: Orozko.

Arratiako barietatea: Bedia, Igorre,
Zeanuri, Dima.

Gernikako barietatea: Mungia, Fruiz,
Meñaka, Forua, Muxika,
Iurreta, Abadiño, Berriz.

Otxandioko barietatea: Ubidca.

Markinako barietatea: Zaldibar.

B2.:

Plentziako barietatea: Urduliz, Leioa,
Loiu, Sondika, Zamudio, Lezama.

Arrigorriagako barietatea: Begoña,
Zaratamo, Galdakao.

Arratiako barietatea: Larrabetzu.

-TEARREN (Ikus bedi 2. mapa)

A.:

Bermeoko barietatea: Bermeo,
Mundaka, Murueta, Arteaga,
Elantxobe.

Gernikako barietatea: Forua, Muxika,
Axangiz, Arrazola.

Markinako barietatea: Etxebarria,
Bolibar, Munitibar, Aulestia,
Lekeitio, Ondarru, Elorrio,
Ermua.

Bergarako barietatea: Elgoibar,
Soraluze, Eibar, Antzuola.

Gatzagako barietatea: Arrasate,
Eskoriatza.

B1.:

Plentziako barietatea: Bakio, Lemoiz,
Sopela, Gatika.

Arrigorriagako barietatea: Buja,
Basauri, Zollo.

Orozkoko barietatea: Orozko.

Arratiako barietatea: Bedia, Igorre,
Zeanuri, Dima.

Gernikako barietatea: Mungia, Fruiz, Meñaka, Zornotza, Errigoitia, Iurreta, Abadiño, Berriz.

Otxandioko barietatea: Otxandio, Ubidea.

Markinako barietatea: Zaldibar.

B2.:

Plentziako barietatea: Urduliz, Leioa; Loiu, Sondika, Zamudio, Lezama.

Arrigorriagako barietatea: Begofña, Galdakao, Zaratamo, Zeberio.

Arratiako barietatea: Larrabetzu.

Otxandioko barietatea: Legutio.

-TEKO (Ikus bedi 3. mapa)

A.:

Bermeoko barietatea: Bermeo, Mundaka, Murueta, Elantxobe.

Gernikako barietatea: Muxika, Zornotza, Arrazola.

Otxandioko barietatea: Otxandio, Legutio.

Markinako barietatea: Etxebarria, Bolibar, Munitibar, Aulestia, Lekeitio, Ondarru, Elorrio, Ermua.

Bergarako barietatea: Elgoibar, Soraluze, Eibar, Antzuola.

Gatzagako barietatea: Arrasate, Eskoriatza, Aramaio.

B1.:

Plentziako barietatea: Bakio, Lemoiz, Sopela, Gatika.

Arrigorriagako barietatea: Buja, Begofña, Basauri, Zaratamo, Zeberio, Zollo.

Orozkoko barietatea: Orozko.

Arratiako barietatea: Bedia, Igorre, Zeanuri, Dima.

Bermeoko barietatea: Arteaga.

Gernikako barietatea: Mungia, Fruiz; Meñaka, Errigoitia, Forua, Axangiz, Iurreta, Abadiño, Berriz.

Otxandioko barietatea: Ubidea.

B2.:

Plentziako barietatea: Urduliz, Leioa, Loiu, Sondika, Zamudio, Lezama.

Arrigorriagako barietatea: Galdakao.

Arratiako barietatea: Larrabetzu.

Mapetan ikus daitekeenez, alor honetan ere, beste batzutan legez, Bizkaia goitik behera erdibitzen duen isoglosa berriro agertzen zaigu.

Bestalde bizkaieraren tradizio literarioan B1 eta B2 eratako adibideak aurkitzea ez da guztiz zaila; hona hemen Añibarroren *Escu-Liburua* deritzon lanetik ateratako zenbait:

III. Ordu atan gura, ta gurez eguin bearco dodana, salvauco banas: neuré becatuen damuaria oso bat: viotz min, dá garbai vici bat: aurrerantzean becatura biurtueceiteco gogo sendo bat. (25. or.)

III. Gozo: ta zori-onoc euquico dodaz neurri betcan; betiraun guztian; iños galdú eceiteco bildur, ta ardurá baga. (62. or.)

Goxereanic promestu, ta artu gogo sendo bat, jausei ezeiteco egún atan becatu onetan, edo bestean: (73. or.)

...: etá ccuré aldez euqui gogó sendo bat, jausi ezeiteco. (80. orri.)

3. Gogo sendo bat aurrerantzean becuritic eguin eceiteco. (124. or.)

...; sendotuco nozula, aurrerantzean jausi eceiteco becatuan; eta jausten banas argaltasunez,... (154. or.)

..., ta Zure vorondatea beti eguiteco; beimbere Zure penac aztu eceiteco:... (190. or.)

...; Zure deiac enzuteco; Zuri beti jarraituteco; Ceruco vide cear estu bedarrean galda ezeiteco;... (197. or)

Lantxo honetan eman ditugun adibideak jasotzeko aipatuko herrietan izan ditugun lekukoen zerrenda emango dugu jarraian, inkesta guztiak 87-90 urte artean egin direnez lekukoen adinak inkestak egineko sasoikoak dira.

Pientziako barietatea:

Bakio: Feliciano Abio, 71.
Lemoiz: Modesta Elortegi, 64.
Gatika: Bibiana Barandika, 74.
Urduliz: Jose M^a Azpiazu, 71.
Sopela: M^a Luisa Urrutxua, 65.
Leioa: Carmen Azkue, 64.
Loiu: Pedro Bilbao, 61.
Sondika: Paulino Bilbao Astola, 73.
Zamudio: Jose Landeta Uriarte, 51.
Lezama: Inaki Amarika, 53.

Arrigorriagako barietatea:

Buja: Jeronimo Kortajarena, 87.
Begoña: Isabel Elorriaga, 72.
Basauri: Modesto Larrea, 70.
Galdakao: Eugenia Totorika, 87.
Zaratamo: Patxi Bijueska, 81.
Zollo: Mari Etxebarria, 66.
Zeberio: Simon Zuluaga, 67.

Orozkoko barietatea:

Orozko: Isabel Uriondo, 75.

Arratiako barietatea:

Larrabetzu: Teresa Jauregi, 63.
Bedia: Maria Zenarruzabeitia, 79.
Igorre: Antonio Aurrekoetxea, 80.
Dima: Maria Teresa Bustinza, 62.
Zeanuri: Angeles Larrazabal, 72.

Bermeoko barietatea:

Bermeo: Justa Beristain, 58.
Mundaka: Domi Amallobieta, 68.
Muruetza: Bitoria Foruria, 66.
Elantxobe: Felisa Aldamiz, 88.

Gernikako barietatea:

Mungia: Maria Uria, 62.
Fruiz: Eugenia Monasterio, 56.
Mefiaka: Sofia Llona, 58.
Zornotza: Benita Dudagoitia, 59.
Errigoitia: Beatriz Etxebarrieta, 72.
Forua: Fermin Urrutia Zelaia, 67.
Muxika: Gregoria Ajuriagocaskoa, 75.
Axangiz: Piedad Gerrickabeitia, 53.
Iurreta: Dolores Sarrionandia, 56.
Abadiño: Teresa Bengoa, 55.
Berriz: Juan Onagoitia, 55.
Arrazola: Arantza Mendia, 53.

Otxandioko barietatea:

Otxandio: Jose M^a Amenabar, 72
Ubidea: Miren Ajuria, 63.
Legutio: Josefa Arregi, 70.

Markinako barietatea:


Etxebarria: Sabina Zubizarreta, 77.
Bolibar: Jose Azpiazu, 64.
Munitibar: Maritxu Irusta, 57.
Aulestia: Francisca, Odiaga, 63.
Lekeitio: Kontxita Anakabe, 58.
Ondarru: Miren Gurutze Aranbarri, 57.
Zaldibar: Felisa Irulegi, 53.
Elorrio: Juanita Gallastegi, 62.
Ermua: Zezilia Izagirre, 63.

Bergarako barietatea:


Elgoibar: Felix Etxebarria, 61.
Antzuola: Edurne Lete, 52.
Soraluze: Jose M^a Leturiondo, 62.

Gatzagako barietatea:


Arrasate: M^a Cristina Mendieta, 56.
Eskoriatza: Ines Otxoa, 61
Aramaio: Gegroria Elortza, 77.



1. mapa



2. mapa



3. mapa

